

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Bezeroak gure aplikazioaren oinarri dira, hauek gabe ezin dugulako proiektua aurrera eraman. Gure kasuan, Elikaleku instalatuta duten eta bertatik produktuak salmentan jarri edo erosten dituzten pertsonak dira. Hauek, Euskal Herriko adin tarte guztietako pertsonak izan daitezke.

Hiru profil nagusi daude. Alde batetik, jende heldua, bertako produktuak kontsumitzearen alde daudenak kanpotik etorritakoak erosi beharrean. Bestetik, erosotasunagatik erosten duen jende gaztea dago, etxetik mugitu gabe eta denbora gutxi galduz erosi dezaketelako produktua. Hauetaz gain, beste hirugarren mota bat dago, hau da, aplikazioa bultzatzeagatik bertan saldu eta erosiko duen jendea.

Hainbat merkatu mota daude, eta gurea zehazki merkatu multilateralra edo plataforma da. Merkatu mota honen helburua, lehen aipatuta bezala, garapen bidean dauden herrialdeetako herritarren bizi-kalitatea eta ekonomia hobetzea da.